

OSOQUNEKO ERAKASKERA  
1996-97. IKAS. URTEA

① ELHEKETA : ASTE HUNTAKO SOLAS-GAIA.

1. Zer gizon da Bixente?
2. Nor zen Piarreñi?
3. Zer jokatu zuen.

Piarres

② ARTHO XURITZEN 3.

Bizkitartean, Marie oihuz eman zen bet-betan: "Ikuxi mikuxi!

- Zer ikuxi?
- Bi edari untzi batean?
- Gorringoa eta xuringoa arroltze-kuskuan.
- Epez dupuzupuepelapa apasmapatzeppen zeper depen?
- Epez!
- Bethi bustia, bethi aherbean? Zer da?...
- Mihia aho-barnean.
- Ba! oro badakizkatzue eta. Hean hean, Bixente, artho-xuritzeeo ixtorio bat pullita?...
- Berehala, Marie, nere pipatzea behar-hostoz koka-ahala bethetan".

Eta Bixente, bere su-koparen drundari<sup>10</sup> pipa pizturik, pafa pafa ari zen, Janpiarrieri beha eta beha, halako hirri maltzur batean.

"-Zer duzu bada niri hola hirriz artzeko, Bixente?

-To, hire eskuineko galtzari belhaunera behatu eta, gogorat heldu baitzaut Mariek galdatu ixtorioa...

Beraz, bertzorduz, hantxet, Xuberoan, Mauleko jaunxkila<sup>11</sup> batzuk menditik heldu ikusi zuten Piarreñi deitzen zuten gizon bat. Eta, salbu zuek eta, Piarreñi heldu zitzaieten bere galtza bat belhaunetik xilo; eta belhaun-xilo hartarik, leiho batetarik bezala, belhaun-kosko bat ageri zen laatza bezen beltz. Alabainan, ithurri gutti kausitu zuen Piarreñik mendian, eta orduan, bere belhauna bātere garbitu gabe atxikia zuen zenbeit hilabethe hetan guzietan.

Hirriz eman zitzaizkon beraz jaunxkila aizinatuak; hirriz eta oihuka:

— Errak to, Piarreñi, ahalke ere behar huke, hire belhaunarekin hola karrikarat agertzeko... Fu, zikin!"

Piarreñi kexatu eta oihuka hasi hura ere:

"Zer, zikin eta mikin? Moko xuriak zuek!... Bi bost liberako jokutzen ditut eta, belhaun zikinagorik badaitela gure konpatniam..."

- Ez alafede, Piarreñi.
- Bi bost liberako, hots?
- Eiñak dituk..."

\* *dante = danteke*

③ ADITZ IKASKUNTZA

- |                |                |
|----------------|----------------|
| 31. Zitzaioten | 32. Zitzaizkon |
| 33. Behar huke | 34. Badaitela  |

31. IZAN - Régime indirect. Indicatif. Imparfait.

Hura zen = il était

- |                      |                          |
|----------------------|--------------------------|
| Hura (lui) Zitzaitan | (à moi) = il m'était     |
| Zitzairun            | (à vous) = il vous était |
| Zitzaiion            | (à lui) = il lui était   |
| Zitzairun            | (à nous) = il nous était |
| Zitzairuen           | (à vous) = il vous était |
| Zitzaien             | (à eux) = il leur était  |

Zu zinen = vous étiez (vsing.)

- |                       |                            |
|-----------------------|----------------------------|
| Zu (vous) Zitzaikitan | (à moi) = vous m'étiez     |
| Zitzaiktion           | (à lui) = vous lui étiez   |
| Zitzaiquirun          | (à vous) = vous nous étiez |
| Zitzaiquien           | (à eux) = vous leur étiez  |

32. IZ. RE. IND. Hek ziren = ils étaient

- |                       |                             |
|-----------------------|-----------------------------|
| Hek (eux) Zitzaikitan | (à moi) = ils m'étaient     |
| Zitzaiquirun          | (à vous) = ils vous étaient |
| Zitzaiktion           | (à lui) = ils lui étaient   |
| Zitzaiquirun          | (à nous) = ils nous étaient |
| Zitzaiquien           | (à vous) = ils vous étaient |
| Zitzaiquien           | (à eux) = ils leur étaient  |

Zuek zirezten = vous étiez =

- |                           |                            |
|---------------------------|----------------------------|
| Zuek (vous) Zitzaikitaten | (à moi) = vous m'étiez     |
| Zitzaikiten               | (à lui) = vous lui étiez   |
| Zitzaiquituten            | (à nous) = vous nous étiez |
| Zitzaiquieten             | (à eux) = vous leur étiez  |